Dia txikiari

Dia Cot

Hungarian jaioa, 2008an
Gipuzkoan adoptatua, 2014an

Kaixo, txiki: zer moduz zaude?

Ume Alaiaren bulegotik ari natzaizu idazten. Adoptatuak izan garen zenbait lagun elkartzen gara bertan, ikasteko, partekatzeko eta elkar babesteko. Sekula ez zenuen pentsatuko honaino iritsiko ginenik, baina lortu dugu. Geure istorioaz ari gara orain, geure esperientzietan eta geuk ikasitakoetan oinarrituta.

Kontakizun honi esker, irakurtzen dutenek hobeto bat egin ahalko dute gure istorioekin, eta hobeto ulertu ahalko dute zer den norberaren familia biologikoarekiko loturak hautsita edukitzea. Horretaz gainera, adoptatuok elkarrekin hobeto konektatu ahal izateko eremu bat ere sortu nahi dugu honen bidez.



Zeren badakizu zer? Asko gara. Eta, nahiz eta batzuetan ulertzea kostatu, gertatu zaigun hau ez zaigu guri bakarrik gertatu. Askok dauzkagu antzeko istorioak.

Gaur zuri idazten dizut: neure buruari.

Oroitzen zaitut txiki, barnerakoi, irribera eta ameslari. Irudikatzen zaitut ate hartantxe, gure harrera-guraso Katineni eta Barnabachi-ren etxean bi ezezagun haiek lehen aldiz ikusi genituenean. Bost-sei urte geneuzkan, eta Txabi ondo-ondoan geneukan, hura zazpi-zortzi urteko. Ez genuen ezertxo ere ulertzen. Ez genekien nora gindoazen, eta ez genekien bi anai-arrebok eskutik helduta segitu ahal izango ote genuen ere.

Bi ezezagun haiek zure adopzio-gurasoak dira orain, baita Txabirenak ere. Elkarri eskutik helduta gabiltza orain ere: nor bere beharrekin, interesekin eta kezkekin, baina beti elkarrekin.

Gogoan dut gure guraso Txema eta Aizpea iritsi zirenekoa. Arrotzak ziren guretzat, eta beldur ginen. Egokitze-prozesu bat behar izan genuen. Lehen egunean, opari eta guzti etorri zitzaizkigun: Lego bat, eta Sirenatxoaren motxila bat. Gogoan duzu nolako poza hartu zenuen? Gurekin ematen zuten eguna, eta gero alde egiten zuten, baina berriz itzultzen ziren biharamunean. Eta horixe bai garrantzitsua: haiek beti berriz itzultzea.

Lehen aldi asko bizi izan genituen haiekin: lehen izozkia dastatu Hungarian, lehen aldiz igerilekura joan, hondartzara… Gauza pila bat ikasi genituen.

Halaber gogoratzen dut, txera eta tristura handiz gogoratu ere, despedida hura. Atzean utzi behar izan genuen Hungarian genuen bizimodua: gure medikua, gure harrera-familia –maitasun handiz gogoratzen gara haietaz–, eta bi lagun haiek, gurekin etxean bizi zirenak, anai-arrebatzat geneuzkanak: Janchi eta Bea. Autora igo, eta, hiru egunen ostean, Elgetan geunden.

Dena zen berria guretzat: etxe berria, familia berria –nahiz eta, egia esan, orduan ez genuen oso ondo ulertzen familiaren kontzeptua– eta bizimodu berria.

Dena zen berria guretzat: etxe berria, familia berria –nahiz eta, egia esan, orduan ez genuen oso ondo ulertzen familiaren kontzeptua– eta bizimodu berria. Ez genekien inoiz itzuliko ote ginen. Hutsetik hasi behar genuen. Baina, gutxienez, Txabi eta laurok elkarrekin geunden oraindik.

Beldurra

Ez dizut gezurrik esango: beldurrak akabatzen nengoen. Baina, eman ziguten babesari esker, modua izan genuen bizitzen ari ginen guztia barneratzeko. Hiru hilabete pasatu zirenerako, jada bagenekien euskaraz, eta aukera izan genuen gure familiaren eta lagunen ondoan haurtzaroaz gozatzeko.

Sei urteko neskatila hari esan nahi diot hamabi urteren ostean Elgetan bizi garela oraindik, mendiz inguratutako herritxo honetan, eta familia honek maite duela eta onartzen duela. Ikasketak egin ahal izan ditugu, eta oraindik ere horretan dihardugu, etorkizun profesional eta pertsonal bat irudikatzeko ahaleginean. Kostatzen da batzuetan, baina aurrera goaz.

Gaur, hau idazten ari naizela, maite nauen jende guztiarenganako esker on handia sentitzen dut

Eta berri on bat ere eman nahi diot sei urteko neskatila hari: azkenean onartu dugula nor garen. Lan, dedikazio eta ulermen handiz, gure identitatea eratzen ari gara. Lehen, lotsa ematen zigun, baina, orain, harro esan dezakegu: "Adoptatua naiz".

Gaur, hau idazten ari naizela, maite nauen jende guztiarenganako esker on handia sentitzen dut. Eta gurasoei ere eskerrak eman nahi dizkiet, gu etxean hartzeagatik eta gure haurtzaroa besarkatzeagatik. Ibilbide pertsonal handia egin dugu denok ere, eta egiten ari gara oraindik. Eta gaur, horrela begiratuta, esan dezakegu erresilienteak izan garela.

Besarkada estu bat, txiki. Baliotsua zara oso.